

Azaleko irudia:

Egilea: Paula Rivero Garcia. Sorkuntza eta Diseinuan graduatua eta Ilustrazio Zientifikoan espezializatua. Instagram: @ritma_ilustracion

Itxura fisikoak, arropak, makillajeak, apaingarriak, tatuajeak, piercingek, eta abarrek kulturalki desberdintzen gaituzte, eta gizarte taldearen arabera, egokiak edo desegokiak izan daitezke. Beraz, guk geure burua nola ikusten dugun, eta gizarteak nola ikusten gaituen, horren arabera, sozialki sailkatzeko eta ulertzeko modu bat izan daiteke. Aldizkari edo liburu baten azala gauza bera da, eta diseinu grafikoarekin, aldizkariaren barnean topa dezakegunaren aurkezpen bat egiten dugu: edukiaren aurkezpen orokorra eta haren sailkapena.

Hasieran, horri txuri baten aurrean aurkitzen gara; hainbat ideia ditugu, ordea. Lau atal nagusitan banatutako aldizkari baten aurrean gaude: zientzia zehatzak, osasun-zientziak, natur zientziak eta teknologia.

Ideen hasierako sailkapen horrek aukeratu dugun lan-kontzeptura helartzeko bidea zehaztu digu, aldizkaria laburbiltzen duena eta edukiaren aurkezpen txiki bat egiten diguna. Izenburu idatziari laguntzen dion garapen bisual bat, alegia.

Gure kontzeptua «ezagutza partekatzea» da.

Aldizkarian, jende askoren eskuetara heldu nahi diren argitarapenak daude.

Ezagutza: garuna, zientzia; eta hemen aldizkariaren lau lerroak ezartzen ditugu: zientzia zehatzak (atomoa), osasun-zientziak (garuna), natur zientziak (txoria) eta teknologia (bonbilla).

Osagai guztiak prest edukita, lan ordu eta kafe askoren ostean, koktele-ran sartzen ditugu... *et voila!*, prest dugu Ekaia aldizkariaren 30. urteurrena ospatuko duen 36. alearen azala!!!!

Plazerra izan da zuekin lan egitea, eta poz handia ematen dit diseinu grafikoaren alde eta irudi bisualen alde egindako apustuak.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISSN: 0214-9001

e-ISSN: 2444-3255

Lege gordailua: BI - 178-91